

EUSKALDUNAK HISTORIA BILA

Aisa erraz ulertzen dut gure herriak bizi duen identitate ezarekiko kezka baina aintzina entzuna dugu, helburuek ez dituztela bide guztiak justifikatzen. Ez dut uste gure historia azalpen nahiek, herriak izan dituen hutsegiteak edo hutsune «beltzak» zertan azaldu beharrik duenik.

Estatuez ez ezik, nazioez mintzaturik, badirudi, azkenaldi honetan, eta aldi luze batez ari naiz, nazioen arteko berdintasunak aldarrikatzen ditugula.

Nazioen arteko desberdintasunak eguna baino argiago begi bistan ditugun ezker, desberdintasun hauek nondik norakoak ote ditugun behin baino gehiagotan galdetu diogu gure mintzo berritsu eta nekazinari.

Hasicra batetan, badirudi euskaldunok gure izena hain gogo onez ikusi nahi dugun munduko historia indartsu eta ospetsu horretan, nazio edo lurralde baten ekintzak munduko historiaren urrezko liburuan idazteko, era bateko edo bestelako konkistak, gerrateak edo beste egin beharrak izan direla, hau da, bakoitzak bere trebetasunak azaldu behar dituela. Trebetasun hauei dagokionez, herriak meritoak jaso ohi izan ditu eta merito hauei esker nazio batzuk besteen gainetik azaldu zaizkigu. Merito hauetan boterea, ospea eta identitatea lortu dira. Nork ez ote du Frantzia edo Ingalaterra ezagutzen, edo Espainia bera. Hara zer nolako imperioak! Nork saritu hauen trebetasunak!

Baina geroago ikusi dugunez, meritoa lortu izan duten guztiek ez dute boterea eskuratu: Hala nola euskaldunok.

Edo nork ez ditu egungo historilari guztiek handik edo hemendik, hala edo hola azaldu dizkiguten justifikazio hauek entzun edo irakurri?

1-Lork Acton-ek historia nola ulertu behar den esaten digunean, historia gizateriaren ekarpenari distintibo edo pertinen-
tea zaion neurrian ulertu behar dugula esaten digunean, laister asko entzun izan dugu euskaldunok Atlantikoan ekarpen garrantzitsu bat izan genuela.

2-Holandarrak itsasontzi eraikitzaile onenak izanik FLUTE izeneko zama-ontzi berezi bat asmatu zutela esatean, euskaldunok ere ba omen genuen aldi hartan zama-ontzi garrantzitsurik. Holandan KOGGE deitzen zituzten artean, Euskal Herrian KOKA deitzen omen genituen. Esan beharrekoa dena da, holandarrak fletcei esker Baltikoko merkatalgoaren jaun eta jabe bihurtu zirela eta euskaldunon izenik hortik ez dela ageri.

3-Holandarren ondoren, ingelesak izan ziran Atlantikoan nagusituko zirenak, arrantza bederen.

Oraingoan ere, ez ginen askoz gutxiago izango bada eta badago historialaririk, garai honetan Ternuan balea harrapatzen zuten bakarrak euskaldunok ginela esaten duenik.

4-Portugaldarrek Ekialde urrutiarekin merkatalgoa inguratu zutela esatean, bada besterik, XVI. mendeko marinelik onenak euskaldunak eta portugaldarrak zirela esaten duenik.

Edo eta beltzen trafikoan ere hurratsak utzi genuela kontatzen digunik..

Beraz, trebetasunik izan dugula erraz dakusagu euskaldunok.

Orain datorkigun galdera: non dago bada, meritokraziaren muga? Zergaitik beste nazioek historia bat, identitate bat? Zergaitik guk ez?

Erraza da azaltzen ikuspuntua aldatu ezker: hau da, maisu bat nahiz eta trebea izan, beti maisu izango da eta bere semea ere seguraski maisua da izanen. Erregearen semea ordea, errege dute izendatuko.

Nazio mailan ere badirudi, era honetako tradizio bat jarraitu beharrean aurkitzen garela.

Meritoetan oinarritu ez zaigun nazio txiki honen historia laburraren identitaterik gabe sentitzen du bere burua. Behar bada, gure herriaren mitoak ez dira meritoetan neurtu behar izango. Zergaitik guretzat ezberdina, nimiñoa eta bitxitzat dugun lurralde hau besteekin konparatu? Derrigorrezkoa al da Cristobal Colon Ameriketara heldu aurretik euskaldunak bale harre-paketan ur haictan arrantzan ibiliak zirela esatea?

Ez dut uste gure herriak, historialariak buruz belarri sartuta dabilzan arren, era honetako justifikazio beharrik duenik.

Identitate justifikazio beharrak mailak eta prezioak ditu eta historikoki zehaztugabeko identitate bat duen herri baten izena balio gutxiko azalpen labur eta orrialdearen oinean agertzen diren notatxoetan jartzea garestiegizat jotzen dut, dignitate gabezia eta errespetu falta beste herrialde batzuen ekintzekin konparatu beharra sentitze hutsa ere.

Ana Urkiza